

ESKOLA

ZARAGUETA ESKOLAKO BERRIPAPERA- www.zaragueta.net

2012KO URTARRILA / 20. zk.

Irakasle berriak gustura

Kanpoan ibili ondoren, etxeratu egin dira: Zaragueta Herri Eskolan hasi dira lanean, Marije, Aitziber eta Ainhoa.



Marije Pikabea Atxega, Aitziber Alonso Agirrezabalaga eta Ainhoa Zumeta Mendizabal. Agiñar bat eta bi oriotar. Gazteak hiruak: 39, 35 eta 33 urtekoak, baina Hezkuntzaren alorrean dagoeneko eskarmentu handia dutenak. Urte batzuk badaramatzate batetik bestera irakasle. Orain hurbildu egin dira, etxe aldera etorri zaizkigu. Orioko eskola publikoan hasi dira lanean,

2011ko irailean: Zaragueta Herri Eskolan.

Eskola berripaperak irakasleekin egoteko aukera izan du. Hurrekin eskola saioa ematek aterata, hiturekin elkartzu gara. Eskuzabal hartu gaituzte, goxo eta atsegin. Haiekin izandako elkarrizketaren fruitu dira bigarren orrialdean dituzun hitzak. Ederki ezagutzen dute hezkuntza mundua, ondo daki-

Gauza batean bat datoz: giro lasaia eta goxoa topatu dute Zaragueta eskolan.

te zer den irakaskuntza. Nondik nora ibili diren galdetu diegu eta, pilatu duten eskarmentua baliatuta, azaldu diezagutela nola topatu duten herriko eskola, nola ikusten duten bertan egiten den lana. Marijek, Aitziberrek eta Ainhoak, atsegin handiz, eman dizkiguten erantzunekin osatu dugu Zaragueta Herri Eskolari buruzko honako erreportaje xume hau.



Zaragueta
Herri Eskola **Orio**

Matrikula epea

Urtarrilaren 30etik Otsailaren 10era

Eskola Zabalik

Urtarrilaren 28an - Ordua: 11:00-13:30

Abaromendi kalea, 11 • 20810 ORIO • Tel.: 943-89 40 52

www.zaragueta.net

persona mundialak
ditugu atsegin





AINHOA ZUMETA MENDIZABAL

Txankako irakasle oriotar gazteak ibilbide luzea du egina, dagoeneko, irakaskuntzan. Atzerriko hizkuntza (ingeleza) ikasi eta zenbait urtez erakusten jardun ondoren, Haur Hezkuntza ikasi zuen.

Urte batzuetan, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako ikastetxeetan lanean ibilita, orain bere herriko eskola publikoan hasi da lanean: Orioko Zaragueta Herri Eskolan.

Ainhoak dioenez, garrantzizkoa da herri guztietan kalitatezko hezkuntza publikoa izatea. "Berdintasunezko gizarzte batean, Hezkuntza eta Osasungintza publikoak behar dira, herritar guztiok oinarritzko premiak ondo aseztzea bermatuta izan behar dugu.

Zerbitzu publikoetan lana serio egin behar dugu. Horretan, irakasleok, zeregin garrantzitsua dugu, kalitatezko heziketa emanez. Hezkuntza publikoak herri guztietara iritsi behar du, eta zerbitzu publiko duina eskaini. Euskal Herrian, jakina, euskalduna behar du, txikitatik eman behar da tokian tokiko hizkuntza ikasteko aukera.

Hori Orion badaukagu: hezkuntza aukera publiko euskaldun eta kalitatezkoa eta, gainera, eskola lasaia eta goxoa. Zaragueta lan egiteko giro ezin hobea aurkitu dut: gertutasuna. Oso inpresio ona egin zidan lehen egunean ikasle eta irakasle berriok egin ziguten harrera-ekitaldi xume baina goxoak. Hasiera-hasieratik bertakotu gintuzten.

Harrigarri egiten zait ikustea nola egiten duten euskaraz kanpotik etorritako ikasle zaharrenek. Hori, jakina, urteetako lan txukunaren emaitza da.

Zaragueta, hobetzeko, herrira gerturatzea falta da. Horretan ari gara, baina herriak oraindik ez du ondo ezagutzen hemengo altxor ederra."



AITZIBER ALONSO AGIRREZABALAGA

Aitziberrek hamahiru urte daramatza irakaskuntzan. Hasierako urteetan, ingeleseko irakasle, eta azken urteotan Lehen Hezkuntzan.

Kanpoan ibili eta gero, gustura dabil bere jaioterriko eskolan, Zaragueta. Eta haur txikiak matrikulatzeko garaia den honetan, animatu egin nahi ditu adin horretako umeen gurasoak, larunbatean eskolara hurbildu daitezzen haurrarekin, eraikina eta instalazioak ezagutzera, eta ikasleak eta irakasleak. "Guk gustura eta goxo jasoko ditugu."

Aitziber orain dela 10 urte jardutzen Zaragueta, ingeles irakasle. Berririo, eskolara itzulita, pozik dago. Maila oneko eskola topatu du: "Orain dela 10 urte baino ikasle gehiago dabil, lehen ez zegoen bi lerroko mailarik, orain bai. Eraikinak hobekuntza nabarmenak izan ditu, instalazio zabalak ditu eta ondo kokatuta dago, naturaz inguratuta.

Giroa lehengoa da, lasaia eta goxoa; gainera, integratzailea, familiarra eta euskalduna. Ez da eskola handia, ez dago masifikaziorik, lanerako ikasle kopuru egokiak ditu getetan. Jolas orduetan ere harreman polita dago maila desberdineko umeen artean. Horrek asko laguntzen du kanpotik datozen ikasleak integratzeko.

Matrikula pixkana goraka doa eta eskolak areto handi bat behar du eta, eguraldi txarra denerako, kirolgune egoki bat. Azken urtetoan gero eta ikasle gehiago etortzen da eskolara bizikletaz. Gure eskolaren inguruan bigorri ona dago; baina herrian sarea osatu egin behar da, edozein bazterretik bizikletaz etorri ahal izateko, erri ondolik etorri beharrik gabe, herri erditik etortzeko. Ea pixkana hori dena gauzatzea lortzen dugun!"



MARIJE PIKABEA ATXEGA

Bere lehen abizenak ondo adierazten du: Marije agiñarra da. Hangoa du aita. Ama, berriz, oriotarra. Hamar urte daramatza Hezkuntzan, Haur Hezkuntzako irakasle. Ordezkapenak egiten batetik bestera ibili ondoren, iaz oposizioak gainditu eta ikasturte honetan lortu du lanpostua Zaragueta, eta hasi da lanean bertan.

Marijeren ustetan, hezkuntza herri baten zutabe nagusietako bat da. "Gainera, azken urteotan gizartean gertatzen ari diren aldaketak direla eta, eskolak garrantzi handiagoa dauka haurren heziketan. Beraz, oso garrantzitsua iruditzen zait kalitatezko hezkuntza publikoa izatea, haur guztiengana doan iritsiko dena.

Urte batzuetan eskola handietan ibilita, hasieran harritu egin nau Zaragueta giro goxo eta lasaia, eta eskolak ematen dituen aukerak; adibidez, adin desberdineko ikasleek gauza batzuk batera egitea edo handiek txikiak laguntzea. Hori oso aberasgarria da haurrentzat eta guretzat.

Zerbait hobetzekotan, etorkinen integrazioa bideratzeko baliabide gehiago jartzea. Hezkuntza Publikoa izugarritzko lana egiten ari da etorkinek euskaratik ikasi eta integratzeko; baina bertarako gehiago behar dira.

Herri handietan zailagoa da; baina Zaragueta ondo integratzen dira. Haurrek jolas librean beren taldetxoak jolas motaren arabera egiten dituzte, haurrak nongoak diren kontuan izan gabe. Orion herriak ere laguntzen du integratzen. Etorkin batzuen euskaratik mailak benetan harriztatzen nauka.

Zaragueta falta zaiona da DBHko gelak jartzea; gure ikasleek ere aukera izateko eskolan segitzeko 16 urte arte. Baina hori bideratuta dago eta 2013-14 ikasturtean DBH izango da."

Musika txiki-txikitatik

Ikastaroa izango da Zaraguetan larunbat goizetan otsailetik aurrera

Zaragueta Herri Eskolak ikastaro bat antolatu du haurrek txiki-txikitatik musikaren eragin positiboa bereganatu dezaten. Ikastaroa irekia da herritar guztientzat: bi urteko haur (2010ean jaiotak) eta haien gurasoentzat. Haurrek beren guraso edo gertuko pertsonaren batekin joan behar baitute saioetara. Saiiak larunbat goizetan izango dira eskolan eta Nerea Goikoetxea irakasle eta musika-terapeuta hernaniarrak emango ditu, otsailetik aurrera. Musikaren alderdi terapeutiko, ludiko eta emozionalaren bitartez, haurraren gaitasunak landuko ditu. Nereak dioenez,



haurrek abestien bitartez, beldurrak eta lotsak behar bezala bideratzen dituzte, hitzak ezagutzen hasten dira, taldean egoten ikasi eta norberaren nortasuna garatzen dute eta besteak errespetatzen ikasi. Hori dena oso garrantzizkoa du haurrak etorkizunerako. Musika eta psicomotrizitatea lagun, haurren emozioak azaleratzen dira, eta emozio horiek nolabait adierazten ikasten dute. Ikastaroa haurrentzako gune sortzailea izango da, erregalu bat umearentzat, diren bezala agertzeko espazio librea. Guraso, egin opari eder hori zure haurrari! Informazio zehatzagoa, Zaragueta Eskolan.

pertsona mundialak ditugu atsegin



III. KROS TXIKIA

ORIO 2012ko OTSAILAK 5

Izena emateko epea: urtarrilaren 22tik aurrera.

Fecha de inscripción: a partir del 22 de enero.

Izena emateko aukerak / Opciones para la inscripción


- 1.- ZARAGUETA HERRI ESKOLAN (zuzendaritzan) 943 89 40 52.
- 2.- ORIOKO KULTUR ETXEAN
- 3.- KARELA KIROLDEGIAN

Egun horretan izena emateko aukera egongo da 11:30 arte

Posibilidad de inscribirse el mismo día del Kros antes de las 11:30

Parte hartzaile guztiak goizeko 11:45ean bilduko dira Zaragueta eskolako sarreran eta leku berean jasoko dira proba bukatu ondoren. A las 11:45 se reunirá a los participantes en la entrada de la escuela y tras la prueba, se deberá recoger a los niñ@s en el mismo sitio.

*Domina parte-hartzaile guztientzat.
Medalla para todos los participantes*



TALDEA	URTEA	ORDUA	DISTANTZ.
A	07/06	12:00	150 m.
B	05/04	12:10	300 m.
C	03/02	12:25	600 m.
D	01/00	12:40	1000 m.



ORIOKODALA
LAGUNTZAILE